

2015eko URTARRILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **1 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko urtarrilaren 28an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Eider Illarramendi Azkue and. <i>2015eko urtarrilaren 27ko 0081 dekretuaren bidez Alkatetzak emandako eskuordetzaz baliatuta</i>
Bertaratutako zinegotziak	Jabier Etxaburu Elu jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Irma Domingorena Zapirain and. Aser Lertxundi Manterola jn.
Ez dira etorri	Juan Luis Illarramendi Roteta Karmele Alberdi Linazasoro and. Mariana Aranburu Garate and. M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Eguneko gaien azterketari ekin aurretik, minutu bateko isilunea egin dute bai Charlie Hebdoren aurkako bai Nigeriako atentatu terroristetan izandako biktimen oroimenez. Minutu horretan, **Berasaluze** jaunak bilkuratik alde egin du eta , ondoren, itzuli da.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a-1) 2014ko azaroaren 26koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

a-2) 2014ko abenduaren 3koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) 2014ko abenduaren 17koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko abenduaren 15etik 2015eko urtarrilaren 23ra

Segidan, Alkatetzak 2014ko abenduaren 15etik 2015eko urtarrilaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko abenduaren 12tik 2015eko urtarrilaren 16ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko abenduaren 12tik 2015eko urtarrilaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- KOMUNIKAZIOA UDALBATZARRARI: GASTU ARAUA EZ BETETZEAGATIK 2014ko EKITALDIKO KREDITU ALDAKETEN ONARPENEAN ETA 2015eko AURREKONTUAREN ONARPENEAN

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaizkio Kontu-hartzailtzak 2014ko abenduaren 17an eta 30ean prestatutako txostenak: bai 2014ko ekitaldiko kreditu-

aldaketak onartzean bai 2015eko aurrekontua onartzean gastu araua ez betetzeagatik egindakoak, hain zuzen.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- ZARAUZKO ENTITATE, ELKARTE ETA BESTE TALDE EDO KOLEKTIBO BATZUEI UDAL LOKAL ETA ARETOEN ERABILERA LAGATZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA. HASIERAKO ONESPENA

Udalerrri honetan aspaldidanik ari dira eskatzen udal lokalak erabiltzen uzteko, bai elkarteak, beren eginbeharretarako egoitza sozial bat edukitzearren, baita beste elkarte batzuk ere, beren helburu kultural, sozial edo bestelakoak betetzeko, edo une jakin batzuetan ekitaldiak egiteko. Horiek horrela, eta tokiko araubideak udal ondasunei buruz duen araudia alde batera utzita, lokal horien lagapena eta erabilera berariaz araututa ez egoteak zailtasun batzuk eragiten dituenek, beharrezkoa da Udalaren lokal eta areto horien lagapena eta erabilera arautuko duen Ordenantza bat prestatu eta onartzea.

Araubide hori ezartze aldera, ZARAUZKO ENTITATE, ELKARTE ETA BESTE TALDE EDO KOLEKTIBO BATZUEI UDAL LOKAL ETA ARETOEN ERABILERA LAGATZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA onartzea proposatu da; eta hori 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 4.2 artikuluan tokiko erakundeei erregelamenduak egin eta bere burua antolatzeke aitortzen dizkien eskumenak aplikatuta.

Ordenantzaren xedea zera da: udalerriko entitateek, elkarteek eta beste talde edo kolektibo batzuek euren helburu kultural, sozial edo bestelakoak era jarraituan edo une jakin batzuetan betetzeko erabiliko dituzten udal lokalen eta beste areto batzuen lagapena nola egin arautzea.

Testua aztertuta, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez horren aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO ENTITATE, ELKARTE ETA BESTE TALDE EDO KOLEKTIBO BATZUEI UDAL LOKAL ETA ARETOEN ERABILERA LAGATZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena

den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

ZARAUZKO ENTITATE, ELKARTE ETA BESTE TALDE EDO KOLEKTIBO BATZUEI UDAL LOKAL ETA ARETOEN ERABILERA LAGATZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, gizarte parte-hartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko prozesuan oso-oso elementu garrantzitsua dugu elkarketa, gizarteak aurrera egiteko funtsezko faktorea.

Horregatik, behar-beharrezkoa da herritarrek parte hartzea, Zarauzko elkarketa-ehuna osatzen duten herri-entitateen eta elkarten bidez, zertarako eta, komunitateko aberastasun sozial eta kulturala gorde eta babesteko eta, aldi berean, erakunde horiek guztiek ordezkatzen dituzten sektore sozial desberdinetan eragina duten gaiak tratatzeko.

Eta testuinguru horretan nahi ditu Zarauzko Udalak elkarketa-ehuna sustatzeko ekintzak burutu, elkarte horien beharrei erantzuna emateko ahaleginean, udal jabetzakoak diren ondasunen erabilera baimenduz.

Udalerrri honetan aspaldidanik ari dira eskatzen udal lokalak erabiltzen uzteko, bai elkarteak, beren eginbeharretarako egoitza sozial bat edukitzearen, baita beste elkarte batzuk ere, beren helburu kultural, sozial edo bestelakoak betetzeko, edo une jakin batzuetan ekitaldiak egiteko. Horiek horrela, eta tokiko araubideak udal ondasunei buruz duen araudia alde batera utzita, lokal horien lagapena eta erabilera berariaz araututa ez egoteak zailtasun batzuk eragiten dituenez, beharrezkoa da Udalaren lokal eta areto horien lagapena eta erabilera arautuko duen Ordenantza bat prestatu eta onartzea.

Araubide hori ezartzeko, honako Ordenantza hau onartu da, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 4.2 artikuluan tokiko erakundeei erregelamenduak egin eta bere burua antolatzeako aitortzen dizkien eskumenak aplikatuta.

I TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

1.- Ordenantza honen xedea zera da: udalerriko entitateek, elkarteek eta beste talde edo kolektibo batzuek euren helburu kultural, sozial edo bestelakoak era jarraituan edo une jakin batzuetan betetzeko erabiliko dituzten udal lokalen eta beste areto batzuen lagapena nola egin arautzea.

2.- Ordenantza honetatik kanpo gelditzen dira herri administrazioen eta haren mendeko entitate edo organismoen alde egindako lokalen erabilera-lagapenak. Halakoak araudi sektorial zehatzaren bidez arautuko dira.

2. artikulua.- Lagapenaren helburuak.

Ordenantza honetan araututako lagapen eta erabilerak ondorengo helburu hauek lortzeko izango dira:

- ✓ Herritarrek, elkarteak eta udalerriko bizitza osatzen duten gainerako taldeak biltzen diren lekuen erabilera partekatua bultzatzea.
- ✓ Erraztasunak ematea hainbat elkarten antolatutako programa eta zerbitzu kulturalak, informatzaileak, prestakuntzakoak, hezkuntzakoak eta aisiakoak martxan jartzeko.
- ✓ Lagapen horietarako eskura dauden udal baliabideak optimizatzea. Udalak eta hainbat taldek lokalak modu partekatuan erabiltzeko eskura dauden udal baliabideak optimizatzea ekarriko du.

3. artikulua.- Betebeharrak.

1.- Udal lokal eta aretoak erabili ahal izateko, ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte entitate eta elkarte onuradunek:

- △ Egoitza soziala Zarauzko udalerrian edukitzea. Salbuespen gisa, Udalak interesgarritzat jotako elkarteek ere erabili ahal izango dituzte lokal eta aretoak, beti ere elkarte eskatzaileak Zarautzen ordezkaritza baldin badu. Salbuespen hauek beti informazio-batzordean landuko dira erabakia hartu aurretik.
- △ Entitatearen xede diren jarduerak egiteko beste bitartekorik ez edukitzea.

- ^ Entitate bezala irabazi asmorik gabekoa izatea, eta entitate, elkarte edo taldeak ez egotea jarduera ekonomiko, profesional, industrial edo merkantilak betetzeko irizpidea duen pertsona fisiko edo juridikoez osatuta.
- ^ Herritarren prestakuntza osoa, biztanleen sustapena eta integrazio eta interakzio soziala bultzatzeko jarduera eta zerbitzuen programa bat garatzea.
- ^ Zerga-betebeharretan, Gizarte Segurantzakoetan eta Zarauzko Udalaren zergetan egunean egotea.
- ^ Diru-laguntzen baldintzak ez betetzeagatik edo haiek ez justifikatzeagatik udal diru-laguntzak itzultzeko ebazpenik jasota ez izatea.

2.- Udalak bere lokal eta aretoen erabilera baimenduko du baldin lokalean garatuko den jarduera herri-onurakoa bada, Zarauzko herritarren mesederako bada eta Udalak lortu nahi dituen helburu eta interes publikoarekin bat badator. Edonola ere, emakida egiteko diskriminaziorik ezaren, berdintasunaren eta publizitatearen printzipioak jarraituko dira.

4. artikulua.- Lagapen-motak.

Udal honek lokalekin bi lagapen-mota egin ditzake:

- ^ Doako izaera eta iraupen jakin bat duen erabilera-lagapena. Inola ere ez da alderdietako baten aldeko eskubide ekonomiko edo errenta-eskubidetzat hartuko.
- ^ Aldi baterako izaera duen lagapena, udal lokal baten unean uneko erabilera, jarduera jakin bat edo batzuk egiteko.

5. artikulua.- Erabiltzeko lagako diren lokalak.

Ordenantza honetan araututako lagapenatarako, Eranskinean zerrendatutako lokal eta aretoak egongo dira.

Udalak aukera izango du entitate, elkarte eta bestelako talde edo kolektiboek erabiltzeko moduan dauden lokalen zerrenda eta esleipena aldatzeko, udal bitarteko eta interesek hala eskatzen dutenean.

6. artikulua.- Ondasunen araubide juridikoa.

1.- Badira udal inbentarioan zerbitzu publiko batekin lotuta egonik jabari publikoko kalifikazioa duten ondasunak. Horien lagapenak, ordenantza honetan araututakoak, erabilera-baimenak dira, hain zuzen ere 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoak, 92. artikuluan xedatutakoaren arabera egindakoak.

Eskaera egiten duten herri erakundeek, elkarteek, taldeek eta kolektiboek soilik jaso ahalko dute erabileraren lagapena, baldin eta lokala eman nahi zaion erabilerarekin bateragarria bada.

2.- Ondarezko ondasunen erabileraren lagapenak prekarioan erabiltzeko baldintzarekin egingo dira, beti ere bere legedi espezifikoak eta Ordenantza honek xedatutakoarekin bat etorritik.

7. artikulua.- Erabileraren araubidea.

Zarauzko Udalak aukera izango du, edozein unetan, herri-onurako arrazoiak direla-eta, alde bakarreko erabakiaren bidez, erabilera-lagapenen baimenak baliogabetzeko, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik sortu gabe, baldin eta lagapen horiek gerora onartutako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, jabari publikoan kalteak sortzen badituzte, interes publiko handiagoko jarduerekin erabiltzea eragozten badute edo higiezinaren erabilera murrizten badute.

8. artikulua.- Higiezinaren titulartasuna.

Erabileraren lagapenak ez du higiezinaren gainean inolako eskubiderik aurreikusten ez eta tartekatzen ere. Higiezinak une oro udal jabetzakoa izaten jarraituko du.

9. artikulua.- Ikuskapenatarako eskubidea.

Udalak aukera izango du lagapenaren xede diren entitateek egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko, asmoa izanik jardueraren berezko helburuekin bat datozen frogatzea.

10. artikulua.- Erabilera partekatua.

1.- Jarduera eta helburu baterako lokal bat eskatzen bada eta ikusten bada horiek aurrera eramateko ez dela beharrezkoa lokalaren erabilera eskusiboa edukitzea, orduan Udalak instalazioa era partekatuan erabiltzeko betebeharra ezar dezake, eta, gainera, udal ebazpenean, instalazioa partekatuta erabiltzeko baldintzak, ordutegiak edo egun eskusiboak jarriko ditu. Entitate emakidadunaren betebeharra izango da, ordea, erabilera partekatua arautzeko arau bereziak jartzea.

2.- Era berean, Udalak, sortzen diren beharren aurrean, elkarte edo entitateei emandako erabilera eskusiboa alda dezake eta lokalari erabilera partekatua eman diezaioke. Kasu horretan, lehendik zeuden elkarte edo erakundeek nahitaez onartu beharko dute ebazpena.

3.- Baldin erabilera partekatua betebeharrak betetzen ez badira edo erabilera partekatua kaltetu, eragotzi edo okertzen duten jarduerak egiten badira, halakoek erabilera emakida baliogabetzea ekar dezakete, aurrez kontraesaneko espedientea egin ondoren, bai lokal hori erabiltzen duten elkarte guztiei edo soilik ustez jokabide horiek izan dituztenei.

II. TITULUA IRAUPEN JAKIN BATERAKO DOAKO ERABILERA-LAGAPENA

11. artikulua.- Kontzeptua.

Edozein entitate, elkarte edo beste talde edo kolektibo batzuen aldeko udal lokal edo areto baten erabilera-lagapen bat da, doako izaera duena, eta inola ere ez da alderdietako baten aldeko eskubide ekonomiko edo errenta-eskubidetzat hartuko.

12. artikulua.- Eskaerak.

1.- Interesa duen entitateak, elkarteak, taldeak edo kolektiboak aurrez eskaera egin ondoren egingo da lagapena. Eskaera formalizatzeko, nahitaezko eskabide-ordria aurkeztuko da Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan, eta horrekin batera honako dokumentazioa entregatuko da:

1. Eskabidearen eredu ofiziala, elkarteko edo entitateko lehendakariak sinatuta.
2. Eskatzailearen NANen fotokopia.
3. Zinpeko aitortpena, elkarteko lehendakariak sinatuta, adieraziko duena Ordenantza ezagutzen duela eta oso-osoarik onartzen duela.
4. Elkarteen Erregistroan inskribatzeko ebazpenaren kopia, halakorik balego.
5. Memoria bat, honakoak zehaztuz:
 - a) Lagapen bidez lortu nahi den lokalaren deskribapena.
 - b) Lokalean garatuko den jarduera.
 - c) Lokala zer ordutegitan erabili nahi den.
 - d) Bere jarduera garatzeko eskura dituen bitartekoak.
 - e) Lokalaren erabilera beste elkarte batzuekin bateragarri egiteko aukerarik ba ote dagoen.
6. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela frogatzeko ziurtagiriak.

2.- Aurrez adierazitakoari utzi gabe, Udalak, egoki iruditzen zaionean, aukera izango du entitate, elkarte, talde edo kolektibo interesdunari beharrezkoa izan daitekeen dokumentazio osagarria eskatzeko.

13. artikulua.- Espedientea izapidetzea.

1.- Eskaera jaso ondoren, eta egon daitezkeen akatsak zuzendu eta gero, Udaleko Idazkaritzak (Ondarea) txostenak eskatuko dizkie entitate eskatzaileek garatuko dituzten jarduerak direla-eta haiekin harremanen bat izan dezaketen Departamentuei.

Kasu bakoitzean jarduerarekin harremana daukan Departamentuak egingo ditu espedientearen izapidetza.

Aurreko artikuluetan adierazitakoari utzi gabe, Alkate/Udalburuak eskaera artxibatzea eta ukatzea erabaki dezake, beste izapidetza egin gabe, baldin eta uste badu eskaera neurritz kanpoko delat edo beharrezkoa ez dela, edo lokala une horretan udal zerbitzuak erabiltzen ari badira, edo Ordenantza honetan jarritako betebeharrak subjektiboak edo helburuak betetzen ez badira.

2.- Izapidetutako espedientea ikusirik, eta alde aurretik Udal Idazkaritzak (Ondarea) Ordenantzan ezarritako betebeharrak betetzen direla esanez txostena egin ondoren, instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, ondorengoak zehaztuz:

- Lagapenaren xede den ondarea.
- Lokalaren erabilera araubidea.
- Lagapenaren iraupena.
- Erabilera baimena formalizatzeko agiriaren proposamena.

3.- Ondoren entitate, elkarte, talde edo kolektibo interesdunari proposamena jakinaraziko zaio, hamabost egun balioduneko epean berariaz adieraz dezan harekin ados dagoen ala ez. Epe horretan ezer adierazten ez badute,

eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta, orduan, espedientea artxibatuko da, aurretik Alkatetzak ebazpena egin ondoren.

4.- Entitate, elkarte, talde edo kolektibo interesdunak adierazi ahalko du lokalaren lagapenaren inguruan dauzkan desadostasun-irizpideetatik zeintzuk diren lagapena erabat eragotziko luketenak, eta, beraz, Udalak horiek onartzen ez baditu horrek esan nahi duela eskaeran atzera egiten duela.

5.- Entitate, elkarte, talde edo kolektibo interesdunaren idatzia eta hor adierazi dituen desadostasunezko erreparaoak ikusita, instruktoreak ebazpenaren behin betiko proposamena egingo du, eta Udal Idazkaritzara bidaliko du, Alkatetzak ebazpena egin dezan.

6.- Eskaera Alkate/Udalburuaren ebazpen bidez erabakiko da. Hor zehaztuko dira artikuluko honetako 2. atalean jasotako gaiak.

7.- Emakidaren ebazpena Ondasunen Udal Inbentarioan inskribatuko da.

8.- Dena den, erabilera-lagapenaren emakidak izaera diskrezionala izango du, inolako eskubiderik sortzen ez duena ez emakidaren aurretik, ezta emakidaren gehienezko epea pasatu ondoren berritza tokatzen denean ere. Gainera, lehentasunez udal zerbitzuekin erabiltzeko udal irizpidearen mende daude beti, bai eskaera egiteko unean, bai etorkizuneko une baterako aurreikuspena egiten denean ere.

14. artikulua.- Ebazpena egiteko epea eta isiltasunaren esanahia.

1.- Espediente horien ebazpena eta jakinarazpena egiteko epea hiru hilabetekoa da, eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita. Dena den, epe hori eten ahal izango da 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 42.5 artikuluan jarritako kasuetan eta baldintzetan.

2.- Ebazpen epean Udalak ez badu prozedurari amaiera emateko ebazpena jakinarazi, eskaera ez dela onartu ulertuko da, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 43.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, lege horrek berak 42. artikuluan espedientearen ebazpena egiteko jasotako betebeharrari utzi gabe.

15. artikulua.- Erabilera-lagapenaren formalizazioa eta okupazioaren hasiera.

1.- Alkate/Udalburuaren ebazpena entitate, elkarte, talde edo kolektibo interesdunei eta espedientearen esku hartu duten udal departamentuei jakinaraziko zaie.

2.- Erabilera-lagapena agiri administratiboan formalizatuko da. Udal lokalaren okupazioa agiri administratiboan sinatzen den egunetik aurrera hasiko da.

3.- Elkartearen ordezkariak erabilera-lagapenaren agiria sinatzen ez badu Udal Ebazpenaren jakinarazpenetik kontatzen hasi eta gehienez hogeita hamar eguneko epean, orduan, emandako baimena galdu eta erabilera-lagapenaren akordioa baliogabetu egingo da.

16. artikulua.- Lagapenaren iraupena.

Ondasunek udal inbentarioan duten kalifikazio juridikoaren arabera, emakidak ondorengo iraupena izango du:

- Jabari publikoko ondasunak: Emakida horiek urtebeteko iraupena izango dute, eta urtez urte automatikoki luza daitezke, gehienez ere lau urte egin arte.
- Ondare-ondasunak: Emakida horiek, orokorrean, urtebeteko iraupena izango dute, eta urtez urte automatikoki luza daitezke, legez onartutako gehienezko iraupena egin arte.

Horiek horrela, organo eskudunak, hasiera batean, urtebetekoa baino epe luzeagoa ematea erabaki ahalko du, eta egoki iruditzen zaizkion luzapenak aurreikusiko ditu, beti ere legeak onartzen dituen gehienezko iraupenen barruan.

17. artikulua.- Lagapena iraugitzeko arrazoiak.

Lagapena iraugitzeko arrazoiak:

- a) Lagapen-epea betetzea.
- b) Eraikina suntsitu edo hondatzea.
- c) Lokalaren xedea aldatzea, hiri-antolaketa aldaketa batean oinarrituta.
- d) Interes publikoko ezusteko zirkunstantzia batzuegatik, Udalak lokalaren erabilera berreskuratu beharra izatea.
- e) Ordenantza honetan bilduta dauden betebeharrak eta erabilera-printzipioak entitate, elkarte, talde edo kolektiboek modu larrian ez betetzea.

- f) Entitate, elkarte, talde edo kolektiboa amaitzea.
- g) Lokalaren erabilera eskura jarri zenetik sei hilabeteko epean benetako erabilerarik ez egitea edo erabilera emateari lagatzea.

e) eta g) kasuetan iraugitze-espeditentia izapidetuko da, entitate interesdunari entzunaldia emanda.

c) eta d) kasuetan iraugitze-espeditentia izapidetuko da, eta gutxienez ere hiru hilabeteko epea emango da lokala Udalaren eskutan jartzeko.

Gainerako kasuetan iraugitze-kausa gertatzeagatik besterik gabe edo automatikoki gertatuko da iraugipena, iraugitze-espeditentia izapidetu beharrik gabe.

f) letraren kasuan, elkartearen arduradunak Udalari berehala jakinarazi beharko dio elkarte amaitu egin dela.

18. artikulua.- Lokala hustea.

1.- Lokala hutsik uzteko Udalak emandako epea pasatu ondoren, entitate, elkarte, talde edo kolektiboak giltzak entregatuko dizkio lokala kokatuta dagoen eraikin edo zerbitzuko udal arduradunari.

2.- Jarritako epean giltzak entregatzen ez badira, Udalak entitate, elkarte, talde edo kolektibo interesdunari ohar bidez adieraziko dio lokala hustu egingo dela bost eguneko epean. Halakoetan, Korporazioak bere bitartekoen bidez egingo du hustuketa hori, eta horretarako nahikoa izango du Alkatzetaren agindua edukitzea. Aginduaren kopia bat pertsona interesdunari entregatuko zaio, lokalean baldin badago.

3.- Lokalaren hustuketak sortutako gastuak lokala erabiltzen duenak ordainduko ditu, eta zenbateko hori premiamendu bidez ere kobratu daiteke.

19. artikulua.- Entitate lagapen-hartzaileen eskubideak.

Lagapena hartzen duen entitate, elkarte, talde edo kolektiboaren funtsezko eskubidea izango da lokala egoitza sozial modura doan eta modu iraunkorrean erabiltzea elkartearen sorrerako helburuak betetzeko.

20. artikulua.- Entitate lagapen-hartzaileen obligazioak.

Hauek izango dira entitate lagapen-hartzailearen obligazioak lokala erabiltzean:

- ⌘ Lokala zaindu eta mantentzea, beti ere jabe den Udalak adierazitako baldintzetan eta haren ikuskaritzapean. Entitate, elkarte, talde edo kolektiboek higiene-egoera onean eduki behar dute lagatako lokala, eta beharrezko arduraz jokatu beharko dute hura erabiltzean, kalterik, arriskurik edo eragozpenik ez sortzeko gainerako entitate lagapen-hartzaileei edo lagatako lokalaren higiezin berean edo aldamenean dauden etxebizitza eta lokaletako jabeei edo erabiltzaileei. Udal jabetzako materiala erabiltzen duten elkarteek haren inbentario xehatua aurkeztuko dute.
- ⌘ Entitate, elkarte, talde edo kolektiboaren kontura izango dira erabilerak sortzen dituen gastu guztiak (garbiketa, aseguruak, ohiko konponketak, etab.). Udalak kontratatu baditu zerbitzu horiek, onura jaso duten elkartearen artean banatuko ditu, lagata daukaten lokalaren azaleraren proportzioan. Banaketa hori ez ordaintzea lagapena desegiteko kausa izango da. Udalak bere gain hartu behar baditu garbiketa edo aseguruak, orduan lagapen-hartzaileak ordaindu beharko ditu Udalak bere gain hartutako gastuak, kasu bakoitzean jartzen diren zenbateko eta epeetan. Salbuespen gisa eta dagokion espeditentian hala justifikatzen bada, Udalak bere gain hartu ahalko ditu lagapen-hartzailearen garbiketa-gastuak.
- ⌘ Udalak bere gain hartuko ditu lokalaren ohiko erabilerak sortutako ur eta elektrizitate gastuak. Baina Udalaren ustez kontsumo horiek neurrigabekoak badira, lagapen-hartzaileari ordainarazi ahalko dizkio.
- ⌘ Udalak ordainduko ditu aparteko konponketek sortutako gastuak eta lokalaren titularrari leporatzeakoak direnak.
- ⌘ Lokala soil-soilik erabiliko da elkartearen sorrerako helburuak eta lagapena justifikatzen dutenak betetzeko.
- ⌘ Entitate, elkarte, talde edo kolektiboek ezin izango dute lokaletan obra edo erreformarik egin, horien izaera edo garrantzia edozein izanda ere, eta ezin izango dute, ezta ere, lokalaren fatxadan edo barruan inolako errotulu edo objekturik jarri (lokalean barrualdean izan ezik, baldin eta entitate erabiltzaileen artean akordioa badago) Udalaren berriarazko baimenik gabe. Lokalean konponketa behar duen edozein kalte edo hondamen gertatzen bada berehala jakinarazi beharko diote Udalari. Udalak ez du inolako kopururik ordaintzeko obligaziorik izango entitate lagapen-hartzaileek -Udalaren berriarazko baimenarekin- lokaletan egiten dituzten hobekuntzengatik. Lokalean egindako erreformak eta hobekuntzak bertan geratuko dira, kontraprestaziorik gabe, behin lagapena amaitu ondoren.
- ⌘ Lehendakaritza edo zuzendaritza-batzordea aldatzen bada edo estatutuetako klausuletan hitzarmenari eragin diezaiokkeen edozein aldaketa egiten bada, Udalari jakinaraztea, bilera horretako aktaren kopiaren bidez.

- ^ Udalak ez ditu ez zuzentzen, ezta onesten ere, lagatako lokaletan egin beharreko jarduerak. Entitate, elkarte, talde edo kolektiboek ez dute Udalarekiko laneko edo bestelako mendekotasun-harremanik, eta Udala ez da, ez zuzenean ezta subsidiarioki ere, lokal barruan gerta daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralen erantzule.
- ^ Elkarte bakoitzak aseguru-poliza bat kontratatuko du lagapenak irauten duen denbora guztirako. Poliza horrek lokaletan uzten diren ondasunak estaliko ditu lapurreta, sute eta abarren aurrean, bai eta erabiltzaileek hirugarrenei sortutako kalteen erantzukizun zibila ere. Lagatako lokal bakoitzeko gutxienez ezbeharreko 60.000 euroko gutxieneko estaldura bermatuko da.
- ^ Lokalak kokatuta dauden udal eraikinaren funtzionamendu-ordutegiaren barruan erabiliko dituzte entitate, elkarte, talde edo kolektibo lagapen-hartzaileek.
- ^ Entitate, elkarte, talde edo kolektibo lagapen-hartzaileek une oro errespetatu beharko dituzte legez jarritako zarata-mailak.

Jarduera hauek egitea berariaz debekatuta dago:

1. Segurtasunarengatik, metro karratu bakoitzeko pertsona bat baino gehiago egotea dakarren jarduera edo indarrean dagoen segurtasun-araudi bat betetzen ez duena.
2. Segurtasunarengatik, material arriskutsuak erabiltzea edo biltegiatzea dakarren jarduera (produktu sukoiak, etab.).

Ezingo da jarri lokalaren erabilera osorik edo zati batean eragotziko duen egitura aldi baterako edo finkorik.

Lagatako lokalean tarifa, prezio, tasa, kanon edo antzeko edozein kontzeptu ordainduta egindako jardueretan, Udalak ahalmena izango du prezio horiek kontrolatzeko eta gehiegizkoak diren zehazteko; gainera, arrazoi horregatik lagapena bukatu dezake.

III. TITULUA ALDI BATERAKO LAGAPENA

21. artikulua.- Kontzeptua.

Udal lokal edo areto baten erabilera-lagapena da, aldi baterako izaerarekin egiten dena, hau da, eguneko edo zati baterako, nahiz eta astero edo hilabetero izan daitekeen.

22. artikulua.- Onuradunak.

Lagapen hau egin ahal izango da udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisikoen edota juridikoen alde, biak ala biak udalerrian aritzen direnak eta lokal bat behar dutenak herriko bizitzarekin zerikusia duten jarduera zehatzak egiteko.

Jarduerarekin harremana daukan Departamentuak eskaera bakoitza banan-banan ebaluatuko du eta baimen-proposamen bat egingo du eskura dauden lokalen, eskatutako denboraren eta honako irizpide hauen arabera:

- 1.- Udalak edo haren mendeko entitateek sustatutako jarduerak.
- 2.- Udalerrian egoitza duten elkarte eta taldeen jarduerak.
- 3.- Udalerrian gizarte- edo kultura-proiektzioa duten jarduerak.

23. artikulua.- Prozedura.

Urte urte programatu ezin diren jardueretarako lagapenak Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan eskatu beharko dira Alkatezari zuzendutako idazki baten bitartez, jarduera egiteko aurreikusitako data baino hamabost egun lehenago gutxienez ere. Idazki horrek honako puntu hauek izango ditu:

- Eskaera egiten duen pertsonaren edo entitatearen datuak.
- Ordezkararen datuak.
- Erabileraren iraupena.
- Egin beharreko jardueren zerrenda.
- Okupatzaileen kopurua.
- Lagapenaren xede edo helburua.
- Jardueraren pertsona arduraduna.

24. artikulua.- Lagapen-hartzaileen obligazioak.

Hurrengo artikuluan ezarritako obligazio orokorrez gain, mota honetako lagapenen titularrek honako obligazio hauek bete beharko dituzte:

- △ Adingabeek egiten badute jarduera, beti egongo da bertan heldu arduradun bat.
- △ Erantzukizun zibileko eta kalteetako aseguru bat izenpetzea.
- △ Kalteak badaude, lagapenaren titularraren kargura izango dira.
- △ Ezin izango da jardueretarako materialik biltegiratu lagapen-hartzaile bakoitzari eskainitako guneeetatik kanpo, eta gunekomunek libre geratu beharko dute.
- △ Laga zitzaion baldintza beretan uztea lokala.
- △ Lokaleko altzarien eta ekipamenduaren kokaera ez aldatzea kontsultatu gabe.
- △ Ekipamendu elektrikoa edo elektronikoa erabili bada, itzalita uztea erabili ondoren.
- △ Erabilera bukatu ondoren lokaleko giltza itzultzea.
- △ Jarduerak zaborrik sortzen badu, zabor-poltsetan sartu eta gaikako bilketako edukiontzietan uztea.

Udalak lokalaren erabilera baliogabetu dezake baldin gaizki erabiltzen bada, baimendutako jarduera arrazoirik gabe aldatzen bada, istiluak edo okerreko jokaerak gertatzen badira, erregelamenduzko arauak betetzen ez badira eta, orokorrean, Ordenantza honetan xedatutako kasu guztietan.

IV. TITULUA FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

25. artikulua.- Funtzionamendurako arau orokorrak.

Lokalak erabiltzeko lagapen guztiek (iraunkorrak edo aldi baterakoak), arau hauek bete beharko dituzte:

1. Lokala erabiltzeko eskubidea edukitzeak esan nahi du erabileraren arauak onartzen direla eta horiek bete ezean eskubide hori galdu egingo dela.
2. Jarduerak arduradun bat edukitzea eskatuko du beti Udalak, eta pertsona hori arduratuko da kasu bakoitzean ordutegiez, jarduera egin ondoren lokala jasotzeaz, garbiketaz, jarduerak sortutako hondakinak jasotzeaz, argiak, iturriak, etab. kontrolatzeaz. Kontuan hartu behar da beste entitate, elkarte, talde edo kolektiboek erabiltzeko moduan geratu beharko duela lokalak.
3. Lokaletan egiten diren jarduera guztietan jardueraren araberako materialak erabiliko dira, eta ezingo dira lokaleko ondasun higigarri edo higiezinak aldatu.
4. Debekatuta dago substantzia psikotropikoak kontsumitzea, erretzea eta edari alkoholodunak sartzeta.
5. Sartzeta debekatutako zaie alkoholaren edo beste droga batzuen eraginpean egoteko itxura duten pertsonen.
6. Lokaletan ezingo da tabakoa eta/edo edari alkoholodunak kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik jarri.
7. Baldin eta udal lokaletan jarduerari buruzko publizitatea egiten bada, beti adierazi beharko da Udalaren lankidetzatza.
8. Okupazio-esparrutik kanpo ezingo da kartelik eta/edo esku-orririk jarri Udalaren baimenik gabe.
9. Lagapen-hartzaileak ezingo dio lokalaren erabilera hirugarren pertsona bati laga.
10. Lokaletan materiala sartu edo ateratzean kontu handiz ibili beharko da, eragozpenik sortu gabe, batez ere lanok gauzez egiten direnean.

26. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguru.

Iraupen jakineko izaera duten lagapenen entitate, elkarte, talde edo kolektibo titularrek aseguru-poliza bat kontratatu beharko dute lagapenak irauten duen denbora guztirako. Poliza horrek lokaletan uzten diren ondasunak estaliko ditu lapurreta, sute eta abarren aurrean, bai eta erabiltzaileek hirugarrenei sortutako kalteen erantzukizun zibila ere. Lagatako lokal bakoitzeko gutxienez ezbeharreko 60.000 euroko estaldura bermatuko da.

Aldi baterako egiten diren lagapenetan ere, aseguru bereziren bat behar duen jarduera garatzen bada, jarduera egiten duen taldeak kontratatu beharko du aseguru.

V. TITULUA ZIGOR-ARAUBIDEA

27. artikulua.- Arau-haustea.

Lagapen-hartzaileek lokaletan egiten dituzten jarduerak ordenantza honetan ezarritako dauden arauak urratzen badituzte, jarduera horiek arau-haustetzat hartuko dira, kalifikazio hauen arabera:

1.- Arau-hauste arinak:

- △ Lokalean kalteak eragitea, horien zenbatekoa gehienez 10.000 eurokoa denean.
- △ Lagatako lokalen erabilera arautzen duten xedapenak ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez denean.
- △ Lagatako lokalak egoera onean edukitzeko betebeharra ez betetzea.

2.- Arau-hauste larriak:

- △ Lokaletan edari alkoholodunak edo bestelako edozein droga sartzea.
- △ Lokal horien barruan pertsonak gutxietsi edo iraintzea.
- △ Irabazi-asmoa duten jarduerak egiteko debekuari buruz Ordenantzan deskribatutakoa ez betetzea.
- △ Lokaletan kalteak eragitea, horien zenbatekoa gutxienez 10.000 eurokoa denean eta ezin denean arau-hauste oso larritzat hartu.
- △ Lokalean baimendu gabeko obrak, lanak edo bestelako jarduerak egitea, horietan aldaketa atzeraezinak gertatzen direnean.
- △ Erabilera-lagapena bukatu dela adierazi ondoren lokala okupatzea.
- △ Udal lokal bat erabiltzea, horretarako baimenik eduki gabe.
- △ Erabilera-lagapenaren xede den lokala haren edukiarekin bat etorri gabe edo erabilera arrazoitu zuten helburuetarako ez beste batzuetarako erabiltzea.
- △ Lokalak dauden eraikinetan zerbitzu publikoaren prestazio normala eragozten edo larriki oztopatzen duten jarduerak egitea.
- △ Gutxienez hiru aldiz arau-hauste arinak errepikatzea.

3.- Arau-hauste oso larriak:

- △ Lagatako higiezinak, higigarriak edo instalazioak hondatzea, horrek zerbitzu publikoa paralizatzea dakarrenean.
- △ Pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen dituzten jarduerak egitea.

4.- Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera. Epe horiek kontatzeko, 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak 132. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

28. artikulua.- Zigorrak

1.- Aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteak egiten badira, ondorengo zigorrak jarriko dira, aurrez dagokion espedienteaz izapidetu ondoren:

- △ Arau-hauste arina: Gehienez zazpiehun eta berrogeita hamar (750,00) euroko isuna eta udal lokala gehienez hiru hilabetez erabiltzeko debekua.
- △ Arau-hauste larria: Zazpiehun eta berrogeita hamar euro eta zentimo batetik (750,01) mila eta bostehun (1.500,00) euro arteko isuna eta udal lokala gehienez bi urtez erabiltzeko debekua.
- △ Arau-hauste oso larria: Mila eta bostehun euro eta zentimo batetik (1.500,01) hiru mila (3.000,00) euro arteko isuna eta udal lokala erabiltzeko behin betiko debekua.

2.- Jarriko diren zigorrak independenteak izango dira, alegia, inolako zerikusirik izango ez dutenak ez erabilera-lagapenak baliogabetzeagatik izapidetutako espedienteekin ezta eragindako kalteak konpontzeko obligazioarekin ere.

3.- Zigor oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera eta arinak urtebetera. Epe horiek kontatzeko, 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak 132. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

29. artikulua.- Organo eskuduna eta prozedura.

1.- Alkate/Udalburuari dagokio ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteak egiteagatik zigorrak ezartzea.

2.- Kapitulu honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko, 2/1998 Legeak, otsailaren 20koak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoak adierazitako prozedura jarraituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalbatzarrak erabakiko ditu ordenantza honen aplikazioan edo bertan arautu gabeko gai puntualei buruz sortzen diren zalantzak, aurrez egoki iruditzen zaizkion txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren. Erabaki horiek bide administratiboa bukatuko dute, eta horien kontra administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal da, jurisdikzio hori arautzen duen legearekin bat etorritik. Dena den, interesdunek berraztertzeko errekurtoa, aukerazkoa, jarri ahal dute,

hala aurreikusten baitu 116 eta 117 artikuluetan 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, eta indarrean jarraituko du hura aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

4.- HERRITARREN ARRETA ZERBITZU INTEGRALA (HAZ) JARTZEA: LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA; LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ETA LANPOSTUEN FUNTZIOEN ESKU-LIBURUAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA

Zarauzko Udalak, 2014ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, onartu zituen, besteren artean, ZARAUZKO UDALAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) JARTZEAREN ONDORIOZ LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA eta LANPOSTUEN ZERRENDAREN aldaketak. Ondorioz, Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko arduradunaz gain, Herritarren Arreta Zerbitzuko agentea-informatzaile bost lanpostu sortzen ditu.

Erabaki hori 2014ko abenduaren 11ko GAO (236 zk.) argitaratu zen, jendeurrean jarri zen hamabost egun baliouduneko epean, iragarkia argitaratu eta hurengo egunetik kontatzen hasita, eta interesdunei jakinarazi zitzairen. Aipatu epean ez dira alegaziorik aurkeztu; beraz, akordioa behin betiko onartutzat har daiteke.

Hala eta guztiz ere, zenbait akats antzeman dira.

Zentzu horretan, ZARAUZKO UDALAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) JARTZEAREN ONDORIOZ LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIAk Herritarren Arreta Zerbitzuan sortzekoak diren agente-informatzaile lanpostuak C1/C2 sailkapen-taldeetan kokatzen ditu, "telefonista-informatzaile" lanpostua betetzen duen karrerako funtzionarioak agente-informatzaile lanpostuetako horniketa prozesuan parte hartzeko.

Hala ere, memoria idazterakoan, administrariaren azpieskalarekin batera ez da txertatu menpekoen azpieskala, biak administrazio orokorreko eskalakoak, eta horiek islatzea lanpostuen zerrendaren kodeetan. Halaber, administrazio aspieskalako kodea eguneratu behar da.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 105. artikuluan xedatzen du herri administrazioek edozein momentuan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta, haien erabakietan dauden akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Aurrekoa ikusita, eta Koordinazio Batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALEAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) JARTZEAREN ONDORIOZ LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA behin betiko onartzea, antzeman diren akatsak zuzendu eta gero, era honetan:

2.6. artikulua

Honako hau esan ordez:

“Herritarren Arreta Zerbitzuan sortuko diren lanpostuak C1/C2 taldekoak izango dira (administrazio orokorreko eskala, azpieskala administratiboa) eta azpieskala administratiboko funtzionarioek bete ahalko dituzte, funtzionario horien funtzioen esparruan sartzen direlako zerbitzuaren funtzioak eta bertan atxikitako lanpostuenak”.

Beste hau esan behar du:

*“Herritarren Arreta Zerbitzuan sortuko diren lanpostuak C1/C2 taldekoak izango dira (administrazio orokorreko eskala, azpieskala administratiboa, **eta menpekoen azpieskala**) eta azpieskala administratiboko **eta menpekoen azpieskalako** funtzionarioek bete ahalko dituzte, funtzionario horien funtzioen esparruan sartzen direlako zerbitzuaren funtzioak eta bertan atxikitako lanpostuenak”.*

Bigarrena.- LANPOSTUEN ZERRENDA behin betiko onartzea, antzeman diren akatsak zuzendu eta gero, honela:

– POSTU HAUEK SORTZEA

DEPARTAMENTUA: HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA

IZENA	E/A	TITULAZIOA
Herritarren Arreta Zerbitzuko Agentea-Informatzailea	12	300
	14	200

Hirugarrena.- Lanpostuen zerrendaren aldaketa, behin betiko izaeraz onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuak (toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak) 127. artikuluan, bai uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak) 16. artikuluan xedatzen dutenaren arabera.

6.- INFORMAZIO BATZORDEAK ERATU, OSATU ETA HORREN MAIZTASUNA FINKATZEA

“Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomoak 2014ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin desegin eta gero, Zarauzko Udaleko TURISMO DEPARTAMENTUA eta KIROL DEPARTAMENTUA eratu dira.

Alkatetzak proposatuta, eta aurrez Koordinazio Batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- TURISMOKO INFORMAZIO BATZORDEA eratzea. Modu honetan osatuta geratuko da:

Turismoko Batzordea

Gaiak: Turismoa, ekitaldiak eta jaiak.

Batzordekideak: 4 Bildu
2 EAJ-PNV
1 PSE-EE
1 Aralar-Ezker Anitza
1 PP

Maiztasuna: hilean behin, bigarren ostegunean, 19:00etan

Bigarrena. KIROLETAKO INFORMAZIO BATZORDEA eratzea. Modu honetan osatuta geratuko da:

Kiroletako Batzordea

Gaiak: Kirolak.

Batzordekideak: 4 Bildu
2 EAJ-PNV
1 PSE-EE
1 Aralar-Ezker Anitza
1 PP

Maiztasuna: hilean behin, hirugarren ostegunean, 19:00etan.

7.- ZARAUZKO SAN FRANTZISKO KALEAN DAGOEN KIOSKOAREN EMAKIDA LUZATZEA ETA KANONA EGUNERATZEA

2007ko abenduaren 26an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen M^a Pilar Bergado Aizpurua andreari ematea ZARAUZKO SAN FRANTZISKO KALEAN DAGOEN KIOSKOA kudeatzeko emakida. Kontratua 2008ko urtarrilaren 25ean sinatu zuten.

Kontratuaren indarraldia 2012ko urtarrilaren 25era arte finkatu zen. Dena den, bi aldeek berariaz adostuta, luzatu ahal izango zen, gehienez ere (luzapenak barne) 8 urte.

2014ko azaroaren 28ko idatziaren bidez (udaletxeko erregistro orokorrean 12750 zk.), M^a Pilar Bergado Aizpurua andreak emakida luzatzeko eskatu zuen.

Udalerrri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- 2016ko urtarrilaren 25era arte luzatzea ZARAUZKO SAN FRANTZISKO KALEAN DAGOEN KIOSKOA kudeatzeko M^a Pilar Bergado Aizpurua andreari emandako emakida.

Bigarrena.- Luzapena indarrean sartzeko, esleipendunak egiaztatu beharko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta dauzkala, dagokion erakundeak egindako ziurtagirien bitartez. Era berean, enpresak kontratatutako eta zerbitzuari atxikitako langileen TC inprimakiak aurkeztu beharko ditu.

Hirugarrena.- Emakidaren kanona berrikustea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Prezioen Indizeak (KPI) aurreko urteko abenduaren gainean izan duen aldaketa (% -0,7) aplikatuta. 2015. urterako kanona 1.778,41 eurokoa izango da.”

8.- EUSKAL FONDOA –EUSKAL ERAKUNDE KOOPERATZAILEEN ELKARTEA – ENTITATEAN SARTZEA

Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Aztergai hau mahai gainean uztea, hurrengo osoko bilkuran aztertu eta eztabaidatzeko.

9.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) PSE-EE taldeak: Charlie Hebdoren aurkako eta Nigerian izandako eraso terroristak salatzeke mozioa

Ondoren, PSE-EE taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

“2015eko urtarrilaren 7an eraso terrorista bat gertatu zen Charlie Hebdo astekari satiriko frantziarrak Parisen duen egoitzan; burua txanoarekin estalita zeramatena bi pertsonak hamabi lagun hil eta beste lau larri zauritu zituzten bertan. Denda

judutar baten bahiketa eta beste lau pertsonaren heriotza gehitu behar zaio gertakari horri.

Fundamentalista erlijioso islamiarren kontrako probokaziotzat jo zen Charlie Hebdo astekariak, umore grafikoaren bidez, era guztietako fundamentalismoak salatzen egindako lana; fundamentalistak eraso bortitzak egiten hasi ziren, besteak beste, 2011n molotov koktelekkin egindako erasoaldia. Hala ere, astekariak aurrera jarraitu zuen adierazpen askatasun eskubidea defendatzen eta bere lana egiten.

Adierazpen askatasuna ahultzea helburu duten atentatu horiek sekulako kommozioa eragin dute Europan, zuzenean eragin baitiote estatukideetako bati. Eta horrek erakundeen eta herritar guztien ahobatezko salaketa eragin du.

Dena dela, ezin dugu ahaztu hilabete honetan bertan eraso terrorista bortitzak ari direla jasaten Nigeriako herritarrak. Haiz zuzen ere, urtarrilaren 3an, Boko Haram muturreko talde islamistak Baga eta beste herrialde batzuk erasotu zituen. Amnistia Internazionalen ustez 2.000 lagun izan daitezke hildakoak. Erasoak eta bahiketak etengabeak dira. Prentsaren arabera "Nigerian estatu islamista bat ezarri nahi duen talde terrorista kanpaina odoltsu eta ankerra ari da burutzen herrialde horretan, eta dagoeneko 3.000 pertsonatik gora dira aurten hildakoak".

Bi gai horiek, Charlie Hebdo astekariaren aurkako atentatuak eta islamista erradikalek Afrikan egiten ari diren erasoek izendatzaile berbera dute: terrorismoa. Hau da, helburu batzuk lortu nahi izatea mehatxuaren eta hilketaren bitartez.

Gertakari horiek salatzeko Zarauzko Udalbatzarrari ondorengo mozioa proposatzen diogu:

MOZIOA

Urteetan zehar fanatismo terroristaren ondorio kriminalak jasan behar izan dituelako, Euskal Herriak bereziki sentitzen ditu Charlie Hebdo astekariaren aurka Parisen izandako atentatuak, eta baita Nigerian izandakoak ere; azken horrek 2015eko urtarrilean hildakoen balantze izugarria utzi du.

Horregatik, Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak terrorismo oro salatu nahi du. Eta, era berean, desberdinen arteko elkarrizketan, errespetuan eta lankidetzan oinarritutako gizartea helburu duten gizalegezko baloreekiko konpromisoa adierazi nahi du.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

b) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Hitzarmen Transatlantikoa aplikatzearen kontrako Udalerri aitortzeko mozioa

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, mozioaren azterketa eta eztabaida atzeratzea, hurrengo osoko bilkuran egiteko, mozioa aurkeztu zuen zinegotzia bilkuran ez dagoelako.

c) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Erregistro Zibilari buruzko mozioa

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, mozioaren azterketa eta eztabaida atzeratzea, hurrengo osoko bilkuran egiteko, mozioa aurkeztu zuen zinegotzia bilkuran ez dagoelako.

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA, eta bilkuran dauden zinegotzien gehiengoak presazkotzat hartu ondoren, gai hau aztertu dute:

– UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HONDAKINEN TRATAMENDUAN KRISI EKONOMIKORIK EZ SORTZEKO

Ondoren, PSE-EE taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

“GHK-k erabaki zuen Banco Santander, La Caixa eta Price-Waterhouse auzitara eramatea Zubietako planta egiteko kredituak estaltzeko kontratuengatik. Hala ere auzitegiek atzera bota dute kontsorzioak estaldura-kontratua dela-eta jarritako demanda, ulertu dutelako formalizatutako kontratuak egokiak zirela eta berez “espekulatibo” bihurtu zirela EH Bilduko Foru Gobernuak eta GHK-k erabaki zutenean hondakinen tratamendu-planta ez eraikitzea.

Beste behin ere, legealdi honetan ohikoa den bezala, GHKren ausarkeriazko barne-kudeaketak ez zituen entzun teknikariek egindako oharrak. Horri gehitzen badiogu Bildu koalizioak herri-onurarekiko erakutsi duen mespretxua eta politikoki tematuta dagoela aurreko legealdian PIGRUGen baitan onartutako planifikazioaren aurka, horrek guztiak ondorio ekonomiko zuzenak izango ditu Gipuzkoako mankomunitate eta udalerrietan.

GHK osatzen duten mankomunitateek hileko gutxi gorabehera milioi erdi euro baino gehiago ordaindu beharko dute, guztira 68 milioi egin arte. Diru hori gipuzkoarren poltsikotik aterako da, eta Bilduk ez eraikitzea erabaki duen azpiegitura batzuk ordaintzeko erabiliko da.

Urola Kosta Udal Elkarteak, gure herria partaide den mankomunitateak, hain zuzen, 2.720.000 euro ordaindu beharko ditu (ia 3 milioi euro). Horrek eragin zuzena izango du herritar guztien poltsikoetan.

Gainera, hileko 500.000 euro jartzen jarraituko dugu, egingo ez den azpiegitura bat ordaintzeko. Bestalde, Hondakinen Kontsorzioak 13,2 milioi euro ordaindu behar izan dizkie beste kontzeptu batzuegatik errauskailua eraikitzeko enpresa arduradunei proiektua baztertzegatik, izan ere kalte-ordainen 8,2 milioiei beste bost milioi gehitu behar izan zaizkie dagoeneko eginda zeuden lanengatik, Bilduk

eraikitzaileekin hitzartutakoaren arabera. Horiez gain beste 2,8 milioi euro baino gehiago jarri dira ordurako eginda zeuden lanak ordaintzeko.

Bilduk gobernaturako GHK eta Foru Aldundia hartzen ari diren erabakiek ingurumen- eta finantza-hondamenera daramate GIPUZKOA. Eraikiko ez diren azpiegitura batzuen kalte-ordainak eta kredituak ordaintzea da alternatiba bakarra, eta bitartean PIGRUGen eta 2008-2016 Aurrerapen Dokumentuaren ordezkorik gabe jarraitzen dute udalerriek eta mankomunitateek. Planifikazio hori aurreko legealdian onartu zuten Batzar Nagusiek, eta orain baztertuta dago, sine die, Gipuzkoan hondakinen tratamendu integralerako ingurumen eta ekonomia aldetik bideragarria zen irtenbide hura. Bere egunean balorazio energetikoaren plantarekin gertatu zen, eta orain kredituen estaldurarekin.

Horiek horrela, udal talde sozialistak ondorengo mozioa aurkezten du Udalbatzarrean onar dadin.

MOZIOA

1.- Udalbatzarrak adierazten du ados dagoela PIGRUGen eta 2008-2016ko Aurrerapen Dokumentuan hondakinen tratamendu integralaren baitan jasotako planifikazioarekin. Agiri horiek gehiengoz onartu ziren GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN.

2.- Udalbatzarrak erabaki du GHK-ko Lehendakaritzari eskatzea berriz ere bideratu dezala Gipuzkoako hondakinen tratamenduaren inguruko egoera eta errespetatu ditzala Batzar Nagusietan eta GHKn jarritako gehiengoak, Gipuzkoak bizi duen ingurumen-krisiari ondorio larriak izango dituen krisi finantzierorik ez gehitzeko.”

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

Halaber, EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA eta Udalbatzarrak aho batez presazkotzat hartu ondoren, ondoko gaia aztertu dute:

– BILDU, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako PROPOSAMENA: HASSANNA AALIARI ASILO POLITIKOA EMATEAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Segidan, BILDU, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Hona hemen testua:

“Mozio hau izenpetzen duten talde politikoek hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurari, Hassanna Aalia sahararrari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoaurrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrek 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeldian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari ospetsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabatasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoaurrek egunero Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Hau guztia dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Zarauzko Udalak honako ERABAKIAK hartu ditu:

1. Hassanna Aaliari sostengua eta elkertasuna adieraztea.
2. Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea: espainiar estatuaren lurraldea uzteko agindua bertan behera utziz eta Hassanna Aaliaren asilo eskaera berriro aztertuz.
3. Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari denean gure kezka azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea eskatzen dugu.
4. Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita gatazka luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.
5. Zarauzko Udalak bat egiten du Hassanaren lagunek bai Zarautzen eta bai Bilbon aste honetan Hassana libre! Asilo politikoa orain lemapean antolatu dituzten mobilizazioekin, eta herritarrei ere dei egiten die bertan parte hartu dezaten.
6. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:
 - ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA
 - ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI

- KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI
- ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI
- NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI
- ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN
- EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI
- EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI
- MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako proposamena onartzea.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak laurden gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.